Gertaera edo egoera bat azaltzeko perspektiba edo ikuspuntu desberdinak erabil daitezke, hots, narratzaile desberdinak. Hurrengo zatia Sara izeneko gizona obrakoa da. Bertan borrokaldi baten kontakizuna pertsonaia bitxi batek egiten du.

Arranoak pentsatu zuena

Hegaletan nenbilen amildegietan ezkutatzen diren sagu eta sugeen bila eta hor non, bat-batean, txapel gorriko soldadu talde handi bat begiztatu nuen. San Faustoko Haitzak deitzen dituzten harkaitz horietarantz zihoazen denak erreskadan. Ez ziren ni tiroz jotzen entseiatu, beste noizbait bezala, aspaldi; baina, hala ere, nahiago izan nuen ez arriskatu, eta hegoalderantz urrundu nintzen. Laster, soldadu gehiago jo nituen begiz: txapela beltzak zeramatzaten, eta lehen ikusitakoa baino talde handiagoa osatzen zuten. Zaldi asko zituzten, gainera.

Gose banintzen ere, ehiza geroxeagorako uztea deliberatu nuen. Izan ere banekien, ordura arteko esperientziak irakatsita, kolore desberdineko txapelez jantzitako bi soldadu talde elkartzen direnean, berehala hasten dela lehia, eta emaitza ezin hobeekin. Hala, bada, gorantz hegaldatu eta itxaroteko erabakia hartu nuen.

Irakurri hurrengo galderak eta markatu erantzuna: bai / ez.

	B	E
1. Narrazio horretan hirugarren pertsonako adizkiak erabili al dira?	❍	❍
2. Erabili diren adizkiek hurbiltasuna edo sinesgarritasuna areagotzeko balio al dute?	❍	❍
3. Arranoak ba al daki nor diren desberdin jantzitako taldeetako kideak?	❍	❍
4. Horrelako gizakiekin topo egin duen lehen aldia al da arranoarentzat?	❍	❍
5. Arranoak erakusten dituen pentsamenduak gizakienak bezalakoak al dira?	❍	❍

1. Orain zure idazteko mentua da:

Idatzi goiko testua 3. pertsona izango balitz bezala.

LIVEWORKSHEETS